

# GURE KOXEFINA

Comédie en trois actes

Personnages:

Mañex

Paxkalina, hunen emaztea.

Koxefina: alhaba eta

Luixa 8 urthe.

Janamarie auzoa eta Maiena hunen alhaba.

## 1er acte

**PAXKALINA:** Nun daude gure jendeak?? Ni hain aspaldi sarthua eta bertzeak ez ageri oraino!!  
Ez zuen balio hola erna nadin!! Xo!! iduritzen zaut urhats bat aditzen dutala!

*(Mañex sartzen da)*

**PAXKALINA:** Ah! hor zirea? Mañex! azkenean!!

**MAÑEX:** Ba, ori, egon niz ixtant bat solasean Piarres sasiondorekin.

**PAXKALINA:** Untsa ixtant luzea!!

**MAÑEX:** Zer pauzu! solasean hasi eta, denbora laster johan!!

**PAXKALINA:** Zueri ere, solasean laket!! Badut beldurra emaztek duqun mihi luze fama eta gizonek izaitea.!!

**MAÑEX:** Ez duzue ez, bakarrik fama, ez zarezte segur, motelak!!

**PAXKALINA:** Eta baliatzen zaku... Zer diozu ori, egungo besta hortaz??

**MAÑEX:** Besta gaitza!! Zer pilota partida ederra!! ez da usu ikusten holakorik!!

**PAXKALINA:** Nork behar zuen erran kenka batez, gure gaztek joanen zutela!!

**MAÑEX:** Zuk errazu!! Izan dira 18 eta 35!! Orduan, Kayet gizagaizoa ari zen, eskuin eta ezker desafioka: 3000 1000 liberari!!

**PAXKALINA:** Ez duzu topatu??

**MAÑEX:** Ez! ez zaut pariatzen laket, zeren irabazteak, galtzea baitu ondoan.

**PAXKALINA:** Alta balioko zuen paperño baten hirriskatzea, hiruen irabazteko!! eta aldi huntan, irabaziko zinuen!! gizon banintz holakoetan bero nindaik!!

**MAÑEX:** Sinhesten zaitut! zer pareta eginen zinuen Kayetekin! Etxe zimenduak laster kordokatuak zinuzten!!

**PAXKALINA:** Gizagaizua! uste ez nuena gertatu zaio!!

**MAÑEX:** Erran ditake! 45 etan berdindu dira eta azkenean, gurek johan dute pondu batez!  
Xalbati esker!! Zer besoaren jabe den!!

**PAXKALINA:** Irabazi ahal du zerbeit!! Akabatzeko, esku zarta hek!!

**MAÑEX:** Kayeti min egin diote nik uste... barnea ilhun zuken, moltsa inharrosirik!!

**PAXKALINA:** Balaldi huntan, buruan hatz egin du; ez ahal da Janamari kontent!

**MAÑEX:** Arrazoinekin!! holako emazte langile eta burutakoak mereziko zuen senhar funts geioxoñokoa!!

**PAXKALINA:** Beharrik harek baitu biena!!

**MAÑEX:** Ba! etxe emazte gaitza da, haurren altxatzeko maneratik haste!

**PAXKALINA:** Ene iduriko sobera larderiatzen ditu!!

**MAÑEX:** Eta ene iduriko, haurrak behar dira atxiki... Zu, ahulegi zira! gaina hartua dauzute!

**PAXKALINA:** Gaixuak!! hain dira maitagarriak!! Ohartu zirea partida ondoan eman dituzten dantza heietan, gure Koxefina zoin den dantzaria?

**MAÑEX:** Horiek ikasiko ditu ba, lana baino segurrago!!

**PAXKALINA:** Denek nausi zuten!!

**MAÑEX:** Ama guzier, berea zaiote dantzariena!

**PAXKALINA:** Gurea, nausi aise! jaun mera, jaun kontseilaria, eta jaun erretora ere, hari zauden beha, xoratuak!!! hain arinki ari zen nun, iduri baizuen ainhera bat!!

**MAÑEX:** Zaude ixilik hortik! emaztekoa! Jaun horiek oro, gureari bezala bortzeri ere behatzen zuten. Hasteko nik, ez dut deus kanbiorik kausitu!

**PAXKALINA:** Sinhesten zitut aise! zu zerbeiti ohartzeko, behar litaizke mendiak beren tokietarik aldaratu, bainan ni, enean nago!

**MAÑEX:** Eta Koxefina nun dago?? Oraikotz sartua izan behar zuen!!

*Janamari sartzen da!*

**JANAMARIE:** Gure Maiena hemen dea?

**PAXKALINA:** Zu zinena Janamari? Ez, ez dira oraino jinak; zato, zato aitzina! Orai ari ginen egungo besta eder hortaz.

**JANAMARIE:** Ez zen ez, denentzat ederra! gure kasko bero horrek, bere parioekin, denak andeatzen dauzkit!

**PAXKALINA:** Zer nahi duzu! Oxtian Mañexek erraiten zautan, galtzeak irabaztea du ondoan. Irabazi balu, denak eder izanen ziren!!

**JANAMARIE:** Ez! zeren bizio horrek, ixtanbat goiti behelti, galtzen du. Zonbat ez da ikusi, hastean, irabazi poxi batek gustu emanik, azkenean, berak eta familiak errekan ezartzen!!

**MAÑEX:** Egia duzu! Janamari, eta behar luke Kayetek, absolutoki bizio hori utzi! holako gizon huna! ez du bertze estakururik.

**JANAMARIE:** Ez da errex! Den gizon hoberena ere, bizio bat hartzeaz geroz, utz araztea!

**MAÑEX:** Nehork egitekotz, zuk eginen duzu!

**JANAMARIE:** Ori, gisa batez, atsegin dut egun gauzak hola gertaturik... Erakaspen hori, agian baliatuko zakolakoan!!

**PAXKALINA:** Erasiatu duzia?

**JANAMARIE:** Ez, aski joha da bera, bainan erakutsi diot, hola segituz, norat eremanen gaituen denak eta zer etsenplu deitoragarria emaiten duen haurreri...

**PAXKALINA:** Ez duzu heietaz arranguratzekorik!!

**JANAMARIE:** Ez, jainko maiteari esker. Egin ahalak guziak egiten ditut heien untsa altxatzeko eta orai artino segurik, untsa johan dire.

**PAXKALINA:** Ene arabera, tinkixko atxikitzen ditutzu.

**JANAMARIE:** Ez, plegu onak eman behar dire hastetik, eta gero, berek, beren baitarik, segitzen dute hartu sail hura.

**MAÑEX:** Egia haundiak horiek oro; bainan, zoazi zu, horien konpreniazterat!!

**PAXKALINA:** Gaztek behar dute beren gaztetasunaz gozatu eta baliatu.

**JANAMARIE:** Hobeki eginen dute luzara, gidari oner segituz... bainan, nun daude? Oraikotz sartuak behar ziren!!

**PAXKALINA:** Daudela gostuan!!

**JANAMARIE:** Eni ez zaut laket ilhuntzeraz geroz, kanpoan izan ditene... Ordu arte ere badute jostatzeko denbora.

**PAXKALINA:** Zer dantza pollitak eman dituzten!!

**JANAMARIE:** Dantzak ba!! ezniz dantzaz kexu!!

**PAXKALINA:** Nik, biziki maite dut gazte horien ikustea, xorien pare; iduri zangoz lurra ez dutela hunkitzen!! zoin zautzun dantzariena?

**JANAMARIE:** Denak berdintsu... Zer munta du, poxi bat goiti beheiti?

**PAXKALINA:** Eni iduritzen zaut gure Koxefina zutela nagusi!!

**JANAMARIE:** Ori, ene ondoan, Zipabarneko Extefana ari zen, haren alhabak denak erhausten zituela!

**PAXKALINA:** Zer? Guéaxinak? Hura zitzautan tontoena!!  
**JANAMARIE:** Eta hala hala Dominika Harrixilkok erraiten zuen, primak eman baluzte, harenak juanen zuela lehena, dudarik batere gabe!!  
**MAÑEX:** Nik erraiten nuena: bakotzar berea ederrena!  
**JANAMARIE:** Bainan juhan niz, engoitik Maiena etxean dut! bihar artio!  
**PAXKALINA eta MAÑEX:** Jainkoak nahi badu!

*Athea idekitzearekin, Koxefina eta Maiena sartzen dira:*

**PAXKALINA:** Beha, nun heldu diren!  
**JANAMARIE:** Nun egon zizte hoin berant?  
**KOXEFINA:** Etxe Perderat udaren pasatzerat heldu diren jaun anderekin.  
**PAXKALINA:** Konpañia haundian zinezten!!  
**MAIENA:** Nahi ginuzten deliberazi Pariserat sehi joaiterat: bat heien etxerat eta bertzea adixkide batzuetarat.  
**JANAMARIE:** Ez duzue onhartu araziz?  
**MAIENA:** Nik segurik ez; badakit etxean ene beharra badela.  
**JANAMARIE:** Ah hola segurik!  
**PAXKALINA:** Eta hik Koxefina?  
**KOXEFINA:** Nik, ba! zeren abantail guziak izanen baititut.  
**MAÑEX:** Zer? hi Pariserat? ez din itxurarik!!! Eta guk zer egin behar dugu hemen??  
**PAXKALINA:** Alon, alon! ez zaitela hola kexa! gizona! zurekin, ez daiteke elheka ere ar!!  
**JANAMARIE:** Bertzenaz ere, ez da oraino joana! behar bada, ikusiko du gure Maienak bezala, baduzuela zuek ere horren beharra.  
**KOXEFINA:** Ez naiz oraino joana, bainan partitzen gira egun zortzi.  
**MAIENA:** Badakin Koxefina, oraino gibelerat egiten ahal dun!! kasu arras deliberatu aitzin!!  
**JANAMARIE:** Orai, gu goazin. Eginzkitzue pentsaketa hoberenak!!

*Janamari eta Maiena atheratzen dira.*

**MAÑEX:** Zer ditun hixtorio horiek?  
**KOXEFINA:** Ez dira batere hixtorioak!! eta zuk ere, aditu eta zer eskaintza egiten dautaten, onhartuko duzu.  
**MAÑEX:** Eta hemengo lanak, nork egingen ditu?  
**PAXKALINA:** Utzazu bada, raintzatzerat!!  
**KOXEFINA:** Zuek gazte zarezte oraino, eta Janbattitt ere ari da goiti.  
**PAXKALINA:** Egia duk Mañex! guri da hemen bermatzea eta gure buruak ahantzirik, haurren onaren bilhatzea.  
**KOXEFINA:** Eta nik, handik lagunduko ziuztet. Hemen ez dezaket pilik aldara; han aldiz, sos ederrak baztertuko ditut. Emanen dautate bizia eta 35000 libera ilhabethean.  
**PAXKALINA:** 35000 libera!! zer dirua! aise behar du onhartu, Mañex!!  
**MAÑEX:** Eta soldata horren irabazteko, zer egin beharko dun? Jakinen duna aski untsa lanean?  
**KOXEFINA:** Aise!! han denak erretxak dira!! ez da hemen bezala, su pizterik ez boketa egunean, ithurrian bortizki artzerik; ez eta ere, eskalerretan, goiti beheiti akitzerik!! Aski da botoin baten zapatzea edo itzultzea, eta krak! ez da bakarrik furnegoa pizten, bainan oraino etxea guzia berotzen da. Bertze botoin bat itzuli eta, oihal garbitzeko mekanika bera ari da lanean. Beheretik goiti igaiteko, sartzen da halako etxola ttipi baten barnean eta hau ere, hurrats bat egin gabe eta berdin jarririk etxola hartan den alki ttipi batean, johan zira goiti.  
**MAÑEX:** Zer dira beraz, botoin horien zapatzeko ariko hire hazten eta 35000 liberaren present emaiten hilabete bakotx? Horiek baizik baizik ez balira egiteko, egin litzazkene berek, akitu gabe eta urririk!!

**KOXEFINA:** Horiek hola dira! berek erran dautate!!

**MAÑEX:** Bazitaken!! Bainan izanen dun botoin itzultzez bertze zerbeit egiteko.

**KOXEFINA:** Eginen dut!

**PAXKALINA:** Ni agradatzen nuena, jende ezagutuatarat joaitea. Hauk, aspaldiko urthetan heldu dira hunat udan, hilabete baten pasatzerat eta badakigu gisakoak direla.

**KOXEFINA:** Hori da! eta hola, nik ere izanen dut urthe guziez, zien ikusteko plazerra.

**PAXKALINA:** Bertzalde, horiekin eginez johan, jina, ez zaun pidaia gostako; hori ere, zer abantaila!! Pidaiak hain baitira kario!!

**KOXEFINA:** Eta gisa hortan, ene irabaziez lagunduko ahal ziuztet, tracteur baten erosten. Nik baino zerbitzu hobeia eginen du.

**PAXKALINA:** Zer diozu Mañex?? Ez duguya arrazoin??

**MAÑEX:** Baduzue elhe eder andana bat; bainan ni beldur, gathu horrek izanen duela bertze buztanik!!

**PAXKALINA:** Ez zitela izan bethi gibel, beldur!!

**KOXEFINA:** Beharrik ama eta ni, hemen baigira gauzen diren bezala ikusteko! Orai, johan niz.

**MAÑEX:** Norat ari hiz, tenore huntan?

**KOXEFINA:** Balerat.

**MAÑEX:** Balerat?? Ez hiza aski dantzatua egun? Segur nun Maiena etxean dagola!!

**KOXEFINA:** Nahi badu ba, horri laket zaio etxe zokoan mutzitzea; ni, alegeragoa niz!

**PAXKALINA:** Ez hiza lehenik afaiten?

**KOXEFINA:** Ez, lagunekin jan behar dut ostatuan.

**PAXKALINA:** Habil beraz, eta josta hadi ontsa!!

**KOXEFINA:** Bihar artio!! (*Atheratzen da.*)

**MAÑEX:** Zer ama ahula! denak onhartzen dazkotzu... Baterez nu haur horren Pariserat joaiteak agradatzen!! Behar dugu gibelatu.

**PAXKALINA:** Nolakoa ziren!! Ez duzia ikusten zer abantailak izanen ditugun orok??

**MAÑEX:** Ez dut erraiten 21 urthe bederen balitu!! Bainan oraino biziki gazte dathor harat juaiteko; doi doya 17 urthe eta zonbat okasione mota ez da hor gaindi? Nun gira zerbeit errekontru tzar gertatzen balitzaio??

**PAXKALINA:** Oraiko gaztek begiak goizik idekitzen dituzte!! Gu, 30 urtetan baino argituago dira 19 etan!!

**MAÑEX:** Horiek oro hola, nik aise nahiago nuke, hemen, egoiten balitz gurekin!!

**PAXKALINA:** Zu, mende batez gibeletik zira!! Bethi tun, tun, oinez nahiago duzu erabili, ezik eta otoan edo airez aire! Allon! segi zaitte oraiko bizi moldeari. Gure Koxefina aldiz, mende huntakoa da eta hortako deliberatzen du molde berriari segitzea.

**MAÑEX:** Bon! ikusiko dugu zer ondorio ekarriko dion!! Agian ona!

**PAXKALINA:** Ez da dudarik, eta orai, zuk, kabalak arthatzeko artean, nik eginen dut afaria. Haur gaztena kolonian, Koxefina balean, afalduko gira buruz buru, espos berri bagine bezala; ez dea hala Mañex??

RIDEAU

Fin du premier acte

## Bigarren zatia

**PAXKALINA:** Ene haur gaixo hura ez ageri oraino, eta bada jadanik oren bat eskola akabatua dela!! Nun dago? Zerbeit gertatu othe zaio??

(*Luixha, haurra sartzen da:*)

**PAXKALINA:** Ah! hor hiza Luixa! nun egon haiz orai artio?

**LUIXA:** Eskolan, puni nintzen.

**PAXKALINA:** Puni? zer eginik?

**LUIXA:** Leitzioneak ez ikasirik.

**PAXKALINA:** Aski ditin andereak erakustea punitzeko orde! zertako da hura? Gaixoa! haugi, haugi hunat, atsaldeko askariaren egiterat. Engoitik ordu dun! zer janen dun?

**LUIXA:** Deusik ez, ez niz gose.

**PAXKALINA:** Gaixoa! Apetitua galdua eta eritua atxikitzen hu han!

**LUIXA:** Baduzia atzo bezala, krema?

**PAXKALINA:** Segurki! no, beha zan! harran hau, gustuan, leitzioneak eta kantoreak bere gisa utzirik. Bixkotxa idorño hok ere biziki onak ditun, ez dea hala??

**LUIXA:** Ba! arras onak.

**PAXKALINA:** Hola segurik! eta kremaño horrek, zer dio? Beltzaren esne eta koko fresko batekin egina ninan hiretzat: gauza sanhoekin!! Ez daun kalterik eginen.

**LUIXA:** (*xutituz*) Orai johan niz kanporat.

**PAXKALINA:** Ba, habil, on dun aire garbi poxi baten hurrupatzea. No xokolet presa bat eta banana hau ere. Nahi dituna?

**LUIXA:** Horiek ba!!

**PAXKALINA:** Ahoan, berak hurtuko ditun eta haxkartuko haute! Gaixua! Habil eta josta untsa. (*Haurra atheratzen da.*)

**PAXKALINA:** Gaixo haurra! bethi puni!! Ageri du andereak ez dela ama! bertze bihotzik luke!! (*Mañex sartzen da.*)

**MAÑEX:** Bakarrik zirea? Nun da Luixa?

**PAXKALINA:** Igorria dut jostatzerat, bethi lanean, osagarria galdua!!

**MAÑEX:** Atxiko du izaria!! Anderea arrangura da leitzioneak ez dituela ikasten!!

**PAXKALINA:** Eta hura zertako da? zer luke nahi? lana haurrek egin eta saria harek altxa?

**MAÑEX:** Nolakoa ziren!! bixtan da haurrak bere baitarik ere ari behar direla! nondik nahi duzu andereak banazka denak berak erakuts ditzan?

**PAXKALINA:** Ari da ari, gaixo haurra, eritua eta appetitua galdua!! Aratsaldekoa ere, ez zuen nahi!!

**MAÑEX:** Aski gosetu eta janen du ba! Orai ere, hemen behar zuen izan bere leitzionen ikasten. Segur naiz auzoko Mailux ari dela. Hori ez da puni!

**PAXKALINA:** Baduzu zer, zure auzoekin; biziki ontsa zautzun Maiena ere ez zadin Pariserat johan gure Koxefina bezala eta nork zuen arrazoin?

**MAÑEX:** Ene arabera, Maienak! Zer egin du Koxefinak joanez geroz? Ez dut oraino haren balentriarik ikusi!!

**PAXKALINA:** Zer egin duen? Ez dituztia irakurtzen igortzen dituen berri onak? Johan orduko, tokiz kanbiatu zen eta geroztik, irabazten ditu 40.000 libera ilhabethean, estrenak bertzalde. Orai, bi urthe han dela! Zer sosak ez dituzke baztertuak!!

**MAÑEX:** Bainan hitzeman zauzkun laguntzak!! Ez dire ageri!! Pil bat ez dauku igorri! elhe ederrak bai bainan hek ez dute moltsa bethetzen. Bertzalde, behar izan dugu mutil ttipi bat hartu Koxefinaren ordain eta haren soldata eta asurantzak karga haundiak dira guretzat. Aldiz auzoan, berak ari dira etxeko etxeko. Hori abantail gaitza.

**PAXKALINA:** Jinen denan, Koxefinak nasaiki saristatuko gaitu.

**MAÑEX:** Noiz jinen da? Joaitan erran zaukun urthe guzietz eginen zuela itzuli bat... Orai, bi urthe joana dela eta haren lehen bisitaren beha gaude.

**PAXKALINA:** Undar lettran erraiten zaukun gutien ustean agertuko dela. Aste huntan berantenez.

**MAÑEX:** Ernatzen ahal da; ortziralean gira.

**PAXKALINA:** Badugu oraino biharko eguna eta gaur ere jin ditake.

**MAÑEX:** Ikusiko dugu zer abantail ekarriko duen; engoitik, ordu luke!!

**PAXKALINA:** Erraiten dautazu izpiritu prisatua dutala; badut beldurra zuk baino hobeki igurikatzen badakitala.

**MAÑEX:** Johan niz ene lanetarat; berdin zurekin ez dut sekulan arrazoin. Sararaz zazu haur

hura, ikas ditzan leitzioneak.

*Mañex atheratzen ba*

**PAXKALINA:** Dagola deskantsatzen! Osagarria lehen!! Egiaren erraiteko, nik ere berantesten hasia dut ba! gure Koxefina eta zoin ikusi nahia!! Nik uste, arras anderetua jinen zaukun hiritik... Behar dut ikusi haur hura ageri denetz... (*Athea idekitzearekin: «Agur Jauna!»*)

**KOXEFINA:** *Ez nuzia ezagutzen, ama!*

**PAXKALINA:** *Hi hiza, Koxefina!! Uste ninan mutiko bat zela?? Zein konten nizan hire ikustea!! (Besarkatzen du.)* Ez dakin zoin ikusi nahia hindudan!!... Zer da galtzen moda??

**KOXEFINA:** Ba! eta hola biziki komodoski niz pidayatzeko.

**PAXKALINA:** Zer erranen daunitak ikusiko hilarik??

**KOXEFINA:** Hura, bethi Matusalemen denborako ideyeta dago!! Zu aldiz, zure mendearekin kurritzen zira. Denak, harek baino hobeki ikusten dituzu. Izpiritu xorrotx eta ideya largoen jabe zira. Inteligenta hots! ni bezala.

**PAXKALINA:** Egia dun, eta horiek oro hola, nola hiz?

**KOXEFINA:** Arras untsa, zuek ere ba??

**PAXKALINA:** Ba, ba, Jainko maiteari esker.

**KOXEFINA:** Janbattitt eta Luixa, haundituak, nik uste? Nun dire?

**PAXKALINA:** Luixa, hor gaindi eta Janbattitt mendian ardiekin.

**KOXEFINA:** Ezagutuko nutea??

**PAXKALINA:** Lanik aski!!! Nihaurek ere, kanbiatua kausitzen haut... Iduritzen zautan mehatu hizela!!

**KOXEFINA:** Ez, ez, mehatu... Feriestu!!

**PAXKALINA:** Bazitaken ba!... No, horra nun den Luixa. Beha Luixa... Ezagutzen duna hau??

**LUIXA:** Ez!!

**KOXEFINA:** Zer?? Koxefina ez ezagutzen? Jadanik ahantzia nuna??

**LUIXA:** Uste nuen mutiko bat zela!

**KOXEFINA:** Gaixoa!! (*Emaiten dazko bi pott. Besarkatzen ari delarik, aita sartzen da:*)

**MAÑEX:** Nor duzue hori??

**PAXKALINA:** Hea ezagutuko duzunez?? Beha hunat??

**MAÑEX:** Jesus!! Koxefina?? Pilda hortan??

**KOXEFINA:** Gaixo aita!! Zu, bethi «arriéré» Den gutieneko kanbioari lotsa! «Il faut être moderne!!!»

**MAÑEX:** Hola dea delako moderne? Galtzekin, pipan, eta ilhe buztan bat kaskotik dilindan? Eni, horiek, enuxenkeriak ziazkin... Denak araberan baditun, badun pollitik!!!

**KOXEFINA:** Denak biziki untsa ditut, haste irabazitik: Bi urthe hotan, miliun bat baztertu dut.

**PAXKALINA:** Zer sosa!! beharrik johan hintzan!!

**KOXEFINA:** Zuk errazu! Hori ere aita, ez zinautan onhartu, eta bizkitartean,... Eta zuek, egin zinutena trakturra??

**MAÑEX:** Zerekin?? Hik igorri laguntza ez dun oraino agertu eta badinat lanik aski hire ordain hartu dugun mutilaren pagatzen.

**PAXKALINA:** Gizon presatua!! Orain emanen derauku behar ditugun guziak!!

**KOXEFINA:** Oraino igurikatu behar duzue, zeren idabaz arau, plazatzen baititut intres ederrean: «à 15%». Gisa hortan, denek abantaila dugu, kapitalaren umeen egiterat uztea.

**MAÑEX:** Ehunarentzat hamabortz? Ni ez nun fida intres haundi horier.

**KOXEFINA:** Ba, zu bethi uzkur ela gibela beldur!! Ageri duzu ez zirela sekulan jali zoko huntarik!!

**MAÑEX:** Eta nun plazatuak ditun?

**KOXEFINA:** Zaude, behar dauzuet lehenik bertze gauza bat erran... Ezkontzekoa niz banko haundi batetako enpleatu batekin eta hunek dauzkit irabaziak plazatzen.

**PAXKALINA:** Zer ezkontza!! Pariseko banko batetako enpleatuarekin!!!  
**MAÑEX:** Zer ika dun gero, gizon gei hori??  
**KOXEFINA:** Biziki plantakoa gisa guziez... Bankoetan ez dituzte nola nahikoak hartzen!!  
**PAXKALINA:** Bixtan dun! horrek berak erakustea emaiten du ez duela nor nahi!  
**JANAMARIE:** Ez, segur! Eta beha zer erhaztun ederra eman dautan!!  
**PAXKALINA:** Oh ba! beha Mañex, gure jaun kontseilariaren emazteak ere, hola holakoa du!!  
**MAÑEX:** Horiek oro hola, nik oraino gaztexkoa kausitzen dut ezkontzeko! 19 urthe doi doya!!  
**KOXEFINA:** Ez gira oraino eginen... Urthe bat bederen, igurikatuko dugu. Aski sos bildu behar dugu muntatzeko, egungo egunean, anhitz behar baita!!  
**MAÑEX:** Bon, bon! urthe batez gauza asko gerta zitaken!!  
**KOXEFINA:** Erran Luixa, habil Maienaren biliia. Behar diot hari ere ene berri handiaz parthe eman... Nola dire horiek?  
**PAXKALINA:** Biziki untsa.  
**MAÑEX:** Denak lanean, osagarrian eta bakean!! hori dun hori, etxeko gostua!!  
**KOXEFINA:** Kayet ari dea bethi pariatzen??  
**MAÑEX:** Ya! ya! utzia din aspaldi bizio tzar hori. Janamari, emazte gaitza dun... Ezti eztia, denak ezartzen ditin bakotxa bere ozkan.  
**KOXEFINA:** Gaixo Maiena!! bizia eremaiten du hemen, plazer bat hartu gabe!! (*Maiena sartzen da eta erraiten: «Hor hiza, Koxefina! azkenean!!»*)  
**KOXEFINA:** Koxefina?? *Jo!* ma chère, *Jo!* Parisen, Koxefina, Josette dun eta hitz guzien laburtzeko moda baita, *Jo* erraiten zautan!!  
**MAÑEX:** No, nardatzen nun zuen jestuez!! Johan nun neure lanetarat.

*Aita atheratzen da.*

**MAIENA:** Beraz, nola hiz, *Jo?*  
**KOXEFINA:** Biziki ontsa! ziek ere ba?  
**MAIENA:** Gu ere, denak, arras untsa, jainkoari esker... Iduritzen zautan menatu hizala!  
**KOXEFINA:** La ligne, ma chère!!  
**MAIENA:** Arras Paristarra hiz!!  
**KOXEFINA:** Segurki! eta ez dinat dolurik!! bahaki zer bizia eremaiten dugun han!!  
**MAIENA:** Bethi bestan, dudarik gabe?? To! hara ama ere, nun heldu den hire ikusterat.  
**KOXEFINA:** Agur Janamari!!  
**JANAMARIE:** Hor hintzana, Koxefina?  
**MAIENA:** Ez da gehiago Koxefina!! Orai, *Jo* da!!  
**JANAMARIE:** Zeri so dago?  
**MAIENA:** Ez so ez!! *Jo!* Pariseko izena du!  
**JANAMARIE:** Allo! nola kanbiatu hizan! ez zakinat hemendik kanpo ezagutuko hindutan ere!!  
**PAXKALINA:** Arras hiritartua!! Ez dea hala?  
**JANAMARIE:** Hiritartua edo... ez diakinat zer!!  
**KOXEFINA:** Gaixoak! ziek ez usatuak kanbio berrieri!!  
**JANAMARIE:** Eta batere gutziarik ere, ez!!  
**KOXEFINA:** Hik ere, eza? Maiena?  
**MAIENA:** Ez, ez, ni untsa nun hola hola, nizan tokian. Bertzenaz ere, etxearen segida hartzen dinat Xalbatekin ezkonduz.  
**KOXEFINA:** Zer? Xalbat pilotariarekin? Zer bizi penatua ereman behar dunan!! «Dans ce trou!»  
**MAIENA:** Batere! Ni hemen laketua nun eta oraiko tresna berriek arintzen dine laborantzako lana. Xalbatek bere irabaziekin erosiak ditin denak.  
**KOXEFINA:** Chacun son goût, ma chère! Ni, hala hala ezkontzekoa nun banko haundi batetako enpleatu batekin.  
**PAXKALINA:** Uste duzea!! zer ezkontza!! Erakuts zakone eraztuna... Ez dea ederra??  
**JANAMARIE eta MAIENA:** Ba, ba! arras ederra!!

**KOXEFINA:** Eta hik, nun dun hiria??

**MAIENA:** Lanen egiteko kendua. Urhea dinat, perla pollit bat erdian.

**KOXEFINA:** En or!! nik, platine eta diamant, eta jaun araberakoa... biziki fina. Mutiko poliita eta elheketari ederra.

**PAXKALINA:** Eta jakintsuna! Pentsa!! Pariseko banko batetan denaz geroz!!

**JANAMARIE:** Ba, ba, horiek oro eder ditun... Nun egina dun gero haren ezagutza?

**KOXEFINA:** Balean!!! Le coup de foudre, ma chère!!

**MAIENA:** Nork presentatua zaunan?

**KOXEFINA:** Nehork!! Joana nindutian ene bi adixkide, Mado eta Lulurekin! Hastean, gure artean ari gintunan dantzan... gero, hori hurbildu eta elgarrez agradatu. Le coup de foudre, en plein!!

**JANAMARIE:** Zer? bertze funtsik gabe, ezkontzerat apailatu hiza??

**KOXEFINA:** Ez ez, erran artio bankoko enpleatua zela, ez niz ez deliberatu.

**JANAMARIE:** Fida ditakea arrotz baten erranari??

**KOXEFINA:** Haren lagunek ere, eman dauzate berri hoberenak. Bertzalde, ageri du zer den!! Ikusiko duzunean, agradatuko zira... Hi ere ba, Maiena.

**MAIENA:** Ni kontent nun eneaz.

**KOXEFINA:** Ah! ez nezaken truka!!

**MAIENA:** Ez nik ere!!

**KOXEFINA:** «D'acc!»

**PAXKALINA:** Zaudezte beraz «TAC» bakotxa zilhaunaz kontent!

**KOXEFINA:** Geroztik, arats guziz johan gitun «en bande joyeuse» besta egiterat... théâtre, cinéma, bai, zeren eta, Mado eta Luluri ere, egin arazi baitiote bertze bi jaunen ezagutza.

**MAIENA:** Zer dituztie beraz, egunaz irabaziak aratsetan xahutzen?

**KOXEFINA:** Zer aparantzia!! Jaun horiek irabazdun haundiak baitira, heiek pagatzen zaizkune denak!! Ils sont galants, ma chère!!

**JANAMARIE:** Eta noiz pausatzen zizte? Egunaz lanean eta aratsetan pestan? ez zazuela osagarria gai bederen!!

**KOXEFINA:** Zaude gostian, ez girela hemen bezala, argiari lehenka jeikitzen. Bertzalde, badugu astean egun bat gure eskuko «La vie de Paris!! c'est épatant!!»

**MAIENA:** Johan zireztea artetan Eskualdunen etxe hartarat?

**KOXEFINA:** Ez, zeren gure gizon geiak ez baitira eskualdunak; gu heier jarraikitzen gitun.

**JANAMARIE:** Elizako hurratsak bederen atxikitzen ditun??

**PAXKALINA:** Nolakoa ziren, Janamari!! Bixtan da!!

**KOXEFINA:** Errazu, orai Maiena ezkontzearekin, ez baituzu Kattinaren beharrik izanen etxean, utzi behar duzu enekin Pariserat. Badut eskualdun plantako baten galdea.

**JANAMARIE:** Jainkoak begira nezula ene haur gaztearen hiri lanjeros hortarat uztea!! Nahiago dinat hemen gaindi ezarri jende ezagutueta.

**KOXEFINA:** Han, aise gehiago irabaziko du!!

**PAXKALINA:** Harri zinaizke, Janamari, bazinaki hunek, zer dirua baztertua duen!!

**JANAMARIE:** Nahi badu ba, bainan nahiago dut, gutiago irabazik ere, bixtan atxiki. Nun gindazke arima eta gorputza galtzen balitu??

**PAXKALINA:** Zoin moda zaharrekoa ziren!! han ere badira ba, toki onak!!

**JANAMARIE:** Ba! bainan badaudea? Harat eta, egiten dute nahi dutena!! Hi ere, Koxefina, laster atheratu hintzan «Etxe Perdeko» jaun andretarik? Zonbat egon hintzan?

**KOXEFINA:** Bi ilhabethe. Toki bat zen!! zoin tinkia?? Maame, bethi gainean, hatsa ere ez zitaken gustian har!! Ganbera heien apartamenduan; arats guziz 9 orenetako ohean!!

**JANAMARIE:** Horiek oro, biziki untsa!!

**KOXEFINA:** Komentu batean baino hertxikiago!!

**JANAMARIE:** Ikusten dun? Hor harat johan geroz, ez zireztela toki gisakoetan egon nahi? Ez ez, ene haurrak, eni hurbil... Orai, goazen, Maiena, bihar ere, elgar ikusiko



baitugu.

**MAIENA:** Beraz, bihar artio, Jo!

**JANAMARIE:** Eta pausa hadi: Iduritzen zautan badunala beharra. Pasa zazue denek gau on bat.

**PAXKALINA eta KOXEFINA:** Gisa bera!!

### *Paxkalin eta Koxefina*

**KOXEFINA:** Gaixoak!! zoin «arriérés» diren!!

**PAXKALINA:** Hik erran!! Hire aitaren gisa, ez zakone iduritzen hemendik kanpo, deus onik badela!!

**KOXEFINA:** Eta segur niz harri litzatezkela ikusten baluzte han gaindiko gauza xoragarriak!! Zer liferentzia, haste gure gizon gaietarik!! Horrena, trunkoa bezain, enea feriesa da.

**PAXKALINA:** Xalbat, mutiko ederra dun, bizkitartean!!

**KOXEFINA:** Ez dut erraiten, bainan horren traka eta enearena, ez da arras berdina... ez eta ere, salutatzeke moldea. Horrenak, esku dorpeak bezain, eneak xuriak eta finak ditu. Mintzairia, donc?? Eta izena bera!!

**PAXKALINA:** Ah, ba! nola deitzen da hire gizon gaia?

**KOXEFINA:** Alain Kervanoé!! Aldiz horrenak... Xalbat Buztin!!! Ikusten duzu??

**PAXKALINA:** Aise!!... Egina dun etzekoen ezagutza?

**KOXEFINA:** Ez, zeren ez da parisanoa, breton da eta Bretania urrun baita, joanen gira behar bada, esposatu eta... Menturaz aintzin, ez dakit xuxen.

**PAXKALINA:** Eta hunat, noiz jinen da?

**KOXEFINA:** Ez oraino. Behar ginuke lehenik etxea antolatu.

**PAXKALINA:** Ez dea etxea gisakoa??

**KOXEFINA:** Gaixo ama!! Ikusten bazinitu hor gaindikoak!! Errezebitzeko salha, ganbera eder, «salle de bain!»...

**PAXKALINA:** Nundik eginen ditugu horiek oro?

**KOXEFINA:** Nik igorriko dauzuetet, zeren Alainez irabazten baitu haundizki eta segur naiz enean ene utzi nahiko dituela.

**PAXKALINA:** Gisa hortan eginen dinau zerbeit.

**KOXEFINA:** Zonbat orenak dira??

**PAXKALINA:** Zazpiak.

**KOXEFINA:** Beraz johan niz, elgarrekin hitz hartuak gira tenore huntan telefonatzea. Ez dut huts egin behar ez dadien griña, gizagaizoa.

**PAXKALINA:** Ba, ba, habil eta gibeleratekoan, sar arazan Luixa. Nik arte hortan, usaiaren ez galtzeko, eginen dinat afari on bat.

RIDEAU

## **HIRUGARREN ZATIA**

*Paxkalin irakurtzen ari delarik, sartzen da Janamari.*

**PAXKALINA:** Ari nintzen Koxefinaren azken letraren irakurtzen.

**JANAMARIE:** Ah! ixkiatu dauzue beraz?

**PAXKALINA:** Ez, badu ilhabethe bat baino gehiago izana dugula.

**JANAMARIE:** Eta geroztik deuserez?

**PAXKALINA:** Deusik! eta berantetsia dut!

**JANAMARIE:** Aurten, ez du bere itzulia egin hemen gaindi??

**PAXKALINA:** Ez, Dauville deitzen den tokian izan dira hunat jiteko orde.  
**JANAMARIE:** Nun da delako Dauville hori??  
**PAXKALINA:** Ez dakit xuxen, bainan itsas hegian da. Hainitz jende haundi eta aberats ibiltzen da udan.  
**JANAMARIE:** Ah!  
**PAXKALINA:** Koxefinaren gizon gaia, hetarik baita, harat ereman du berekin. «Congéen pasatzerat». Potretak ere igorri dauzkute... Beha?  
**JANAMARIE:** Ez nuzke ene haurrak beztimenta hortan edo hobeki erraiteko, beztimenta eskas hortan ikusi nahi!!!  
**PAXKALINA:** Horiek, itsas hegikoak dira... «short» deitzen omen dira.  
**JANAMARIE:** Ba, ba! legezko xorta horiek, doi doya dute gorputz kantail bat estaltzen... Noiz dira espos??  
**PAXKALINA:** Ez dakigu oraino xuxen.  
**JANAMARIE:** Engoitik, ordu lukete!!  
**PAXKALINA:** Has zaite zu ere, Mañexen gisa!! Ez da karkara hortarik ixiltzen... eta bizkitartean, ez ditake ezkontza hoberik!! Zoazte zuek, gizonen konprenitzerat!!  
**JANAMARIE:** Aise! bietarik bat... Hola beti elgarrekin ikustea baino nahio luke jainko legean planta dituen. Ori, badu urthe bat baino gehiago gure Maiena, ezkondua dela eta orai, familiatua.  
**PAXKALINA:** Untsa erremetitu da?  
**JANAMARIE:** Arras untsa. Kattina ere, berriz itzulia da bere tokirat.  
**PAXKALINA:** Laketua, dudarik gabe?  
**JANAMARIE:** Aspaldi! Badu urthe bat han dela. Toki ona du biziki... eta herrian usu ikusteko menean. Orai ere, haurra jin delarik, zer zerbitzua ez dauku egin!!  
**PAXKALINA:** Bainan hirian, soldata hobea luke!!  
**JANAMARIE:** Eta beharbada, gutiago bazter lezake.  
**PAXKALINA:** Agradamendu gehiago baluke ere... Etxekoer da, beren buruak ahantzirik, haurren onaren bilhatzea.  
**JANAMARIE:** Haurren on hura, bakotxak gure molderat ikusten dugu. Etxeko goxotasuna ez dea lehen?

*Koxefina sartzen da nigarrez hipaka.*

**PAXKALINA:** Jesus!! Koxefina!! Zer dun??  
**KOXEFINA:** Ene... Gizon... gaia...  
**PAXKALINA:** Zer zaio zerbeit errekontru gertatu? Ala, hil da bederen???  
**KOXEFINA:** Hori balitz bada!... Nahiago... ko... nuen... hi... hi... hi...  
**JANAMARIE:** Gaixoa, ez haila holaka!! ixil hadi!!  
**KOXEFINA:** ... Hi... Hi... Hi...!  
**PAXKALINA:?** Zer egin daun?? Mintza hadi!!  
**KOXEFINA:** Joan da... Hi... hi...hi...!  
**PAXKALINA:** Zer? Hi,,. utzi??  
**KOXEFINA:** Hori baizik ez balitz!!! Hi... Hi...  
**PAXKALINA:** Zer behar dut aditu? Erran bada!!  
**KOXEFINA:** Uztea berdin zaut, bainan...  
**PAXKALINA:** Bainan zer??  
**KOXEFINA:** Ene sos guziuk galdu ditut!!  
**PAXKALINA:** Ah! Jainko maitia!!

*Aita sartzen da:*

**MAÑEX:** Zer duzue?? Zer gertatzen da?

**PAXKALINA:** Gaixo haurra!! Gizon gaiak utzi du eta...

**MAÑEX:** Hori duna?? Ez haila holaka!!! izanen dun bertze bat.

**PAXKALINA:** Bainan zaud1!! Bere irabazi guziak johan dazko!!

**MAÑEX:** Baninan ba beldurra, zerbeit holako gertatuko zela. Ez eni aipa intres izariz goitikoak.  
Badute heiek zerbeit ziliporta tzar!!

**KOXEFINA:** Ez zen batere bankoko enpleatua; gezurra zuen.

**JANAMARIE:** Beharrik ezkont aitzin ezagutu dun!!

**PAXKALINA:** Hik erran!!

**KOXEFINA:** Berenitxura eder eta elhe legunekin, ohoin tzar batzu ziren hiruak. Gure irabazi guziak klikatu dauzkigute eta gehiago dena, Mudo, ez dakigu zer bilhakatu den!!  
Ilhabethe bat baino gehiago falta dela!!

**PAXKALINA:** Oi! ei! ai! ei! zer izigarrikeria!!

**KOXEFINA:** Lulu eta ni Dauvillen ginelarik, gertatua da. Haren etxeakoek berririk ez izanez, asaldata dira eta jin Pariserat. Parte eman dute polizari,,, Denetan xerka, bainan Mado nihun ez ageri!!

**PAXKALINA:** Holako izigarrikerien ondotik, diruaren galtzea, deusik ez zautan! Hi bederen hemen hiz!!/

**KOXEFINA:** Madoren etxeakoak, zozotuak bezala ziren!!

**PAXKALINA:** Zer zioten orduan, zuen adixkide heiek?

**KOXEFINA:** Bazterrak higitzen hasi bezain laster, gure biligarroak airatu! Izan niz bankoan ene sosaren ondotik, bainan, han ere, ez ezagutzen Alain Kervanoé.

**PAXKALINA:** Zer aitzinekoa!!

**KOXEFINA:** Eta orai, hirur urtheren buruan sos erdi bat gabe niz!!

**MAÑEX:** Eginen dinau ba zerbeit; denak elgarrekin lanean ariz, hemendik aitzina.

*Maiena sartzen da.*

**MAIENA:** Hor hintzana, Jo?

**KOXEFINA:** Ez nun gehiago, Jo... Zozokeria horietarik, sendatua nun!! Asea nun hiriaz eta han kausitzen diren jende faltsu tzarrez!!

**MAIENA:** Gaixoa! Zer hi, hire gizon gaiak?...

**KOXEFINA:** Ene gizon gaia pollita zunan!! Zer da mahain hunen gainean? Haren potreta??  
(*Hartzen du, urratzen eta botatzen*) Horra, ez dut gehiago haren itxurarik ikusi nahi ez eta ere hartaz mintzatzen aditu nahi!!

**MAÑEX:** Eta orai, hemen egonen hiz gurekin, dudarik gabe??

**KOXEFINA:** Segurki!! batere dudarik gabe! bertze goxotasunean biziko niz zuen artean!

**MAIENA:** Parisen uzteak ez dauna dolu eginen?

**KOXEFINA:** Ah, ez!! hango bizi herratua, zer den, ez dakizue!! Espantuak haundi ginituen ba!  
bainan bethi kalupan, lehertuak, denetarat buru ezin eginez!!

**JANAMARIE:** Eta hango soldata haundiak??

**KOXEFINA:** Dakizulu irabazarazten zautatela!! Denak ene gain: Jateko prestatze, etxearen garbitze, joste, lisatze, oihal xuritze, zilintza bat bethi alha, eta hari ihardesteko, jo eskuin, jo ezker, noiz nahi etxea bestalierrez bethea, eta zer baxera metak ikuzteko! Segur, hilabethearen buruan ez nuela soldata ebatsia!!

**MAÑEX:** Uste ninan botoin bat zapatu edo itzuli eta, denak berak egiten zirela??

**KOXEFINA:** Asko ba hala egiten ziren eta beharrik!! bertzenaz, ez nintzan sekulan helduko!!  
Hola, hola ere, lanik aski.

**JANAMARIE:** Holako bizi herratuan, nola kausitzen zinuten besta egiteko artea?

**KOXEFINA:** Aratselan, batzuetan, untsa oherat johan nahiak, ustez zerbeit huts egiten ginuen ez elgarretaratuz... Eta aitzina, handik landa, zazpi estai behar ginituen oraino idan gure ganberetarat joiteko, ez baizen ba ascenseurrik... Eta zer ganberak!!  
Aierik gabeko korzila hertsu batzu! Zonbeit aldiz, ez ginena eskalerretan jartzen,

ezin helduz??

**JANAMARIE:** Lehen toki hartan, ez hin holakorik??

**MAIENA:** Han egon bahintz, Eskualzarren biltzarran eta han kausitzen diren laguneri jarraikiz, ez zaunan holakorik gertatuko.

**KOXEFINA:** Egia, bainan, hor harat joaiteaz geroz, libertateaz gira gose.

**PAXKALINA:** Halere, ez dun bederen osagarria galdu.

**KOXEFINA:** Ez, bainan jakizula badutala pausatzearen beharra!!

**MAIENA:** Untsa pausa hadi, gero lanari lotzeko gogotik.

**KOXEFINA:** Ikusiak ikusi, lehen baino gogotikago ariko naiz, segur!!

**JANAMARIE:** Eta gero, gure Maienaren gisa, hemengo mutiko langile eta serio batekin hartuko dun etxearen segida.

**KOXEFINA:** Gaizoak! Hauieri bederen, fida ditake, leialak eta onak baitira!

**MAIENA:** Egia behar daunat erran: sosak soste, atsegin dinat gauzak hola itzulirik.

**JANAMARIE:** Gertakari kaatsa bezain baliosa! Biziak badauzka kaska idor sendatzaile batzu. Orlioit zireztea gure Kayet ere, nola diru galtze haundi batek sendatu zuen bere pariatzeko biziotik?

**PAXKALINA:** Horiek oro, egiak, eta haundiagokoa ere gertha zitaken, bainan egiaren erraiteko, eni, kapital haundi haren galtzeak, ximiko egiten!!!

**KOXEFINA:** (*Eskua pausatuz amaren besoaren gainean*): Eni ere, ba ama!!

**PAXKALINA:** Ah! beha zan, sal zan erhaztun eder hori; diru poxi bat eginen dun!

**KOXEFINA:** Erhian duta oraino? Ene asalduran ahantzia nuen! Hunat jin aitzin, saldu nahi izan dut, bainan joierian erran dautate faltsua dela!

**PAXKALINA:** Oh! nori behar zen halakorik gogoratu??

**KOXEFINA:** (*Ximindeirat botatuz*) Erre, suntsi bedi hor! eta horrekin, orhoitzapen tzar guziak!!

**MAIENA:** Egia dun! eta orai, pasatuak pasatu, loth gaiten elgarrekin xoko huntako bizi moldeari.

**KOXEFINA:** Ah ba! Ez eni aipa gehiago hirirat joiterik! asea niz hango faltsukeriez eta lanjerrez.

**PAXKALINA:** Nihaur ere, gertakari izigarri horier pentsatzean, oilo larru bilhakatzen nun!!

**KOXEFINA:** Orai ni hemengoa, dena hemengoa!!

**PAXKALINA:** Hemengoa eta gurea, gure Koxefina!!!!

FIN

RIDEAU